

*Batzar
Nagusia*

BALANTZE

TXOSTENAK



1992

**EUZKADIREN
ETORKIZUNERAKO IKUSPEGI
BERRIAK**

**(1992ko Urtarrilaren 11an eta 12an egindako Batzar
Nagusian onarturiko Txostena)**

AURKIBIDEA

	Orrialdea
0. SARRERA	53
I. XXI. MENDE HASIERARAKO AURREIKUSI DIREN IKUSPEGI NAGUSIAK	55
1.1. Ikuspegi geo-politikoak	55
1.2. Bakea eta Segurtasuna. Kontzeptu berriak	57
1.3. Eztabaida eta tirabirak	58
1.4. Ekonomia eta Lana	60
1.5. Ikuspegi politikoak	65
1.6. Laguntzaile berriak. Jokalari berriak	67
1.7. Kultura. Ideiak eta balore berriak	71
II. EUZKADI: AZTERLANEAN MURGILDUZ	73
2.1. Esparru demografikoa	73
2.2. Esparru Sozio-ekonomikoa	75
III. POLITIKA EKINTZEN BEHAGUNEA	76
IV. JAURTZEKO HAMAR ARAU	77

0. SARRERA

Datozen urteetan partidu politiko jakin baten iharduna bideratu asmoz jaio den dokumentuan murgiltzea, irrikagarria bezain korapilatsua eta arriskatua da. Ezinegonak agintzen duen mundu honetan, edozein erabaki zalantzatan jarri eta aldi berean, arlo eta esparru berriei atak zabaltzen dizkien mundu aldakor honetan norberak norbere bidea aurkitzea ez da batere erreza.

Hala ere, politikari ororen lanak –eta ondorioz, datozen urteetan euskal gizartearen politikaren ardatz nagusi izatera deitua dagoen Partiduarenak ere– “*geroa aurrikustea, hura eskura izateko neurriak hartu eta gizarteak bere egin dezan ahalegintzea*” eskatzen du. Ikuspegi honetatik, beraz, Euzko Alderdi Jeltzaleak, bere historiari inoiz uko egin gabe, dokumentu honetan zehar etorkizuna –XXI. mende hasiera– irudikatzeke eginahalak egingo ditu, izaera eta jarrera desberdinez osaturiko errealtatea. Izan ere, hura ezagututa bakarrik finkatu ahal izango dugu geure eginbeharra eta politika kudeaketa, bai pertsona garen aldetik, bai herri garenarenetik, bai alderdi politiko garen ikuspuntutik; horren ildotik joango da Jaurlaritzaren lana eta Euskal Gizartean daukagun ordezkariaren.

Zentzu honetan, bada, *Nacionalismo 2000-2000erako Abertzaletasuna* gogoeta prozesuak zehazten zuen hariari heldu eta aurrera egitea da dokumentu honen helburua. Baina badago besterik: ez bairik gabe dokumentua aberastuko duten pentsamolde berriak eta gertakizun nabarmenak gehituz, datozen hurrengo lau urteetako politika zehaztearen lana errezuko digute, 1996an Batzar Nagusia berriro bildu eta berrikusi arte, hain justu. Dena den, *epe luzerako ikuspuntua beti gogoan izanda*, ezen, zalantzak zalantza, epe labur eta erdibideko epean etorkizuna eskura izateak ihardunbide egokitik jotzea ekarriko baitu, sasi-bideei atak sarratuko dizkion bitartean.

Ordurarte, oinarri-oinarrizkoa dugu Euzkadi ikuspegi zabalago batetik aztertzea. Nolakoa da eta izango da mundua hurrengo urteetan? Zerk eta nolatan astinduko du gure Herria denbora horretan? Zer egin behar dugu –gure apaltasunean ahal dugun neurrian mundu berria eratzen saiatzeaz gain– herritarren ongizate maila bermatu eta

hobetzeko? Zer egin gure herriak nortasuna galdu gabe eta hizpidez, izaten jarrai dezan unibertsoan?

Galdera guzti horiei erantzuna bilatzea, zaila ezezik, igarkizunetan aritzea da, zinez. Hala ere, nahi ez den geroa jasateko ez da **era hoberik, hari hurbiltzeko** ahaleginak txuliatzea baino –konplizitatea, erosotasuna eta konpromezurik eza erabiliz–. Guk, geure aldetik behintzat, ahaleginaren bidea urratu dugu **“egia ibiliaren ibiliaz”** lortzen dela eta geroa **“etorri, ez delako inoiz etortzen”**, **“ekarri”** egiten dela uste dugulako; are gehiago gobernuaren jabe eta gizarte istulutsu batetako politika mendean duen Alderdiaren konpromezuaren ikuspuntutik aztertuz gero; baita dagokion lekuaren bila dabilen nazioaren ikuspuntutik ere. Egocra hori izango da nagusi datozen urteotan, ustez bederen.

Ingurune honetan, bada, **“Euzkadiren etorkizunerako ikuspegi berriak”** delako dokumentuak, lau hausnarketa maila biltzen ditu:

- 1) **XXI. menderako aurreikusi diren ikuspegi berrien azterketa.** Egunean egunean aldatuz doan asaldatutako mundu hau zehaztuko duten gertakarien, hala geo-politika esparrua nola gaur ikertzen ari diren kontzeptu berriak abiapuntutzat hartuta bakera eta segurtasunaren gaineko eztabaidaren azken ondorio bezala aterako den gizarteaz aztertzea dugu helburu; baita politika baldintzapean jarriko duen baina jada mamituak diren politika ikuspegi berriek ere eragingo duten ekonomia, lanaren itxuraldaketa aldarrikatzen hasia den ekonomiaren ikuspuntutik ere. Betiko aldagarriak ordezkaturiko dituzten **“jokalari eta laguntzaile berrien”** presentzia eta hauen boterea gizarteaz –alderdi politikoak ere barne– ez ditugu alboratu utziko; ezta Ingurugiroari zor zaion lehen-tasuna emango dion kultura **“berdea”** ere; guzti hori, noski, gure kulturaren bultzagarri diren balore, jarrera eta ideia berrietan oinarritua.
- 2) **Euzkadiren azterlanean murgiltzea**, oinarritzko lau esparruen arabera: demografia, ekonomia, sozio-politika eta kultura. Guzti horrekin, eta printzipio berrien osagarri modura, mende amaierako benetazko Euzkadiaz ezagutu eta kokatu.
- 3) **Ekintzapide politiko baten aurrean, erne.** Geroa aurreikusi eta balizko Euzkadiaz identifikatu ostean, ezinbesteko gertatzen zaigu, Alderdiak, eguneroko ihardunbidea bideratuko duten politika ihardunaren arlo nagusietan jarri ditzala begiak:

Gizarte normalizatu baten barruan eta hara heltzeko, eraikitze prozesuan bete-betean sartua dagoen Europa berriaren barruan azaleratuko da Euzkadiaz berria. Prozesuak, Ongizate Gizarteaz izango du oinarri, hainbeste eta hainbeste gizartek –euskal gizarteak ere–, hain maitea dugun goraldia lortzeari uko egin beharko dioten arren edo hura lortu nahi izanez gero, erizpideak aldatu beharko ditugula; betiere emakume eta gizon askea, gizarte berriaren izena eta izana. Horrela izan dadin, pertsona garen aldetik eta Alderdi garenetik ere, lanari ekingo diogu.

- 4) **Jaurtzeko hamar arau** hauek, alderdi politiko batetako kide izatearen ondorio eta gizarteaz ahal den heinean hobetzeko zaletasunaren hondar dira. Gobernuaren egitasmoari datxekizkion ekintza edo programa bereziak baino, lehen mailako gorabeheren gaineko Arauak dira –egunean egon eta jendeak hala eskatzen duelako–. Gobernuak haietan jarri beharko du arreta, lortu nahi dugun Gizartearen denboraren gurpilari egokitu dakion.

I. XXI. Mende hasierarako aurreikusi diren ikuspegi nagusiak

Ziztu-bizian aldatuz doan gizarte baten kide izanez gero, beldurrak astintzen du ikerketa arloa eta gizonaren, horrezkero politikoaren, erabakiak hartzeko joera. Hala-koetan, irtenbiderik gabeko bidean sartzen gaituen iragarpenak egiteko aukera zabaltzen duten loturarik gabeko aldaketan susmoa nagusitu ohi da.

Hala ere, edo aldaketa kontrolatu edo gertakariaren ildoari jarraitzeko gai direnak dira gizartearen buruzagi. Nolanahi ere, gizarteaz hobera zuzentzea dute helburu –norabide berriak direla bide–. Hori egiteko, ezinbestekoa da gerorako erabakietan eragina duten aldagarri sorta aztertzea; baita etorkizun horren ardatz nagusiak finkatzea ere, ezen, gurpilaren piezak elkarlotuta joan behar dutenaren zalantzarik ez bait daukagu eta batek kale eginez gero, gurpilak ez du bueltarik emango. Horretan saiatzea baino ez zaigu gelditzen, beraz.

Politika alorreko gure ihardunbidea –eta are garrantzitsuagoa dena, bizitzaren aurrean erakutsiko dugun jarrera– bideratzen baliagarri suertatuko zaizkigun printzipio koherenteak zehaztu asmoz jorratuko ditugun esparruak berriak izaki, gainerako gorabehera ardatzei gainbegiradaxoa botako diegu, gauza batez bederen ohartu gaitezen eta gogoeta egin dezagun: herri bakoitzaren bere-berezko ekonomia eta bilakera politiko-sozial den bezalakoa izatearren hartzera behartu gaituen zenbait jarrera eta erizpiderekin nkezk eskuratu ahal izango dugu geroa.

Hortaz, jarrera berriak, lanean ihardutzeko eta haietaz arduratzeko alor berriak, aldagarri berriak eta azken finean, kultura berria, berebizikoak dira.

1.1. Ikuspegi geo-politikoak.

Bizigarren Mundu Gerratearen ondorik sortu ziren potentzia handi bik mantendu

duten orekak agindu du gaurdaino baina munduaren "statu quo" delakoak eztauden egin duenez, ezinegona nagusitu da munduan, hasi aurrerantzean nork aginduko duenari buruzko zalantzekin, Ekialdeko egoerarekin jarraitu edo tirabira ugariren gune diren Erdi Ekialde, Afrika edo Kuba bezalako herrialdeekin segi, eta Europar Elkartearen finkatzea ere kolokan jarri duela ahaztu gabe.

Azterketa zehatzen testigantzan Sobiet Batasunaren zatiketa, baten batzuk, hala Andrei Amalrik disidenteak 1969an ("*Sobrevivirá la Unión Soviética a 1984?*"), nola Helene Carrere D'Encausse-k 1978an ("*El imperio estalla*") iragarri zuten arren, S.E.S.B.-eko aldaketak eta Berlineko hormaren erortzea edo sozialismoan bizi diren herrialde guztietako zalapartak bezalako arazoak ustekabean harrapatu gintuzten denok, mendebaldeko komunikabideak ere.

Stalinen pentsamoldea agortzeak itxura eta aparatu hutsezko egitura ekarri zuen. Sistemaren porrotak agerian utzi zuen errusiar nazionalismo handia, gizarte lotura bakar bezala; aldi berean, totalitarismo zapaltzailearen azpian ezkututzen ziren nazionalismoak esnatu zituen.

Sobietar Estatuak murgilduta dauden anabasazko politika eta ekonomia egoerak, kolokan jartzen du Europa eta munduaren oreka; baina ez hori bakarrik, mendebaldeko herrietan gizarte tirabira gogorak ekar ditzake kasurik onenean, jende piloak aldegitoko arriskuak arrotzenganako ikusiezina berarekin dakar eta.

Egoera honi aurre egiteko, bada, zenbait gertakari aztertu beharra dago:

- a) Distentsioa, Varsoviako Itunea apurtu eta "gera hotza" amaitzean. Sobiet Batasunekoak izandako Errepublika desberdinetako armamentu nuklear instalakuntzak eta errusiar Imperialismoa berezarriko denaren beldur, kontrolatzeari utzi nahi ez dien armamentu eta ekoizpenagatik, artean ere desorekaren arriskuak dirau. Zentzu honetan, lur, itsaso eta airez Bush-ek daukan helmen erdi eta laburreko armamentu nuklearra ezabatzeko hartu duen erabakiak, aukera zabaltzen dio Gorbachov-i, eta ez da gutxi, Errepublika ez-Sobietarretako armamentu nuklearra suntsitzeko.
- b) "*Sozialismo erreala*"-ren porrota, gaur egun ulertzen den eran behinik behin; baita sozialismoa zalantzatan jartzea ere, marxista moldekoa bezain beste aldaketen aldekoa edo demokratikoa. Sozialismoaren porrotak argi baino garbiago erakutsi du ez dagoela beste biderik gizartearen ongizatea lortzeko, merkatu ekonomia baino, nahiz eta pobreak eta lehiaren grinak dakartzaten desorekei, erabat antolatutako ekonomia sozialista batetik merkatu ekonomiarako igarobidean, eta gero ere, merezi luketen arreta ematen ez zaizkien.
- c) Nazionalismoek berriro ere azaleratzen duten indarra, eta gainera, ez bakarrik doakien herrialdetik at dauden inguruetaoak, desberdintasunean oinarritutako herrien nortasun eraberritua, non gizakiak, bere baloreen "umezurztasuna"-ren osagarria, pilaketa eta ekonomizismo modernoan aurkitzen duen.
- d) Sobietar sistema behera etortzearen eta Golkoko Gerraren ondorik indartu den amerikarren buruzagitza. Ez uko egin, ez inorekin erdibana egin nahi ez duen buruzagitza, bereak eta bi egiten dituela osatu gabeko Europak bere militar sistema eratu ez dezan, Jugoslaviako arazoa bezalakoetan, bere erizpideekin eskuhartzeko gauza den militar sistema.

- e) Ate joka datozkigun Ekialdeko herrialdeen anabasazko egoera dela eta, momentuan aurrera egin ezinean baina inoiz baino premiazkoagoa den Europaren osaketa, ardatz nagusi duen Alemaniarenganako herrialde horien susmo txarrak edota subiranutasuna galdu gura ez duten eta beren nagusitasuna ezartzeko eginahalak egiten dituzten britaniar eta frantziarren tinka larriak egoera areagotu dutelarik.
- f) Eta guztiaren atzean, hirugarren mundua, ekinaren ekinez bere historia eginez. Asiar ekialdetik indarrez etorri datorren potentzia ekonomikoa; mendebaldeko aparteko inguruetaoak gero baino bihar urrunago dagoen latinamerikar herrialdeen integrazio, bere buruaren zaletasun eta demokratizazio prozesu astuna.
- g) Islamiar munduaren egoera berezia, Europaren auzoko: fundamentalismoaren defendatzaile sutsu, Saladino berria aurkitu gura, garai feudaletako erregimen ahul eta erorkorra. Mundua ulertzeko era zeharo desberdina, haien arregura, eta batipat mendebaldeko ekonomiaren lehen-gaien jabe direla kontutan hartuz gero, Europaren ekonomia, izena eta izana eta bizimodua inork arriskutan jartzekotan, haiek aukera-aukeran.

Azken finean, gizaldi hasierako ikuspegiak zehaztuko dituzten historiaren bilakareren zertzeladak. Ezbairik gabe, alor geo-politiko berrirako bidean jarriko gaituzte, non honako joera eta printzipioei eutsi beharko diegun:

1. Edozein kanpo-harremenen bultzatzaile eta ardatz, elkarriketa; asmoak eta produktuak eztabaidatu eta elkarrekin aldatu, praktikotasunik ez daukan oro emanez -edozein ideologiaren gainetik-.
2. Botere politikoa berreskuratu erabaki prozesu guztietan, alde aurretiko baldintza bat kontutan hartuaz: aurreikusitako irtenbideen Ekonomizitatea, guztionak diren arazo handietan aldagarriak elkarlotuta doazelako, ezin bana daitezkeelako.
3. Kanpora zabaltzea eta orokortasuna eta hurbileko eta barruko bikoiztasunerantzko etengabeko prozesua. Antolapide eredu oro, esparru politiko-administratibo eta herritarren jarrera bustiko duen bikoiztasuna.
4. Argipideren bat bilatu edo dagoenatariko bat nahita onartu, ikuspegi geo-politiko aldakorren orekaren mesederako, berme modura.
5. Eroso bizi diren herrialdeak eta baztertutakotzat dauzkagunen arteko aldea areagotzeko joera, mendebaldetik (gure bizileku aberats honetatik) beharrezko eta konpromezuzko laguntza eta diru-laguntzak munduko gainontzeko herrialdeei luzatuz.
6. Estatu zorrotzen esparruen berezko Europa berriaren mapa jaso, estatu zorrotz horiek aldaketei muxin egin dieten arren haren gurpilean sartuko dira ez ideologi edo "*printzipioek*" hala eskatzen dielako, arrazoi pragmatiko eta operatiboen eskariz baino.

1.2. Bakea eta Segurtasuna. Kontzeptu berriak.

Ahaztu ez gaituzten gainetik eta ordenean egon dauden aldeak zalantzatan jarritz, Varsovia-

ko Itunea behera etorri zenean biztutako Bigarren Mundu Gerratearen azkenaren ondorio bezala, bakea, defentsa eta segurtasunak, kontzeptu berriak dakarzkigute gogora.

Gaur arte bakearen helburuari, defentsa estrategia xedeek laguntzen bazioten ere, aurrerantzean bakearen aurkakoengan susterreko aldaketa gauzatzea izango da segurtasunaren "zirriborroa"ren abiapuntu.

Uste mailan bederen, "lurralde barruko" istilu eta tirabirak baretuko ez diren arren, aurrerantzean elkar-ulertze giroan mamituko dira gure inguruko harremanak, non militar mailako egiturak motelduko diren. Bestela, ekarri dezagun gogora jugoslaviar gatazkaren gainean Europako Elkarrekin hartu zuen erabakia: herrialdea defendatu asmoz kalera atera ziren estatuaren ejerzitoei, legezketasuna ukatu zien, orduarte inoiz bezala.

Gainera datorkigun geroan, berrikuntza prozesu luze bezain astunaren ostean (NATO erakundearen egokitzea CSCE eta UEO barruan) eta Europatik apurka-apurka tropa aliatuen kanporatzea baina baita sobietar eta jada amatatu den Ekialdeko blokeko ejerzitioen indarberitzearen ostean, hona hemen segurtasun politikaren gune izango diren eragile berriak:

- A. Gizarte demokratiko orok duen terrorismo arazoa eta berau errotik mozteko xedea, denon kalterako da eta.
- B. Aldaketaren muga non dagoen zehaztuko duten ekonomia-teknologia aroen iraupenaren arabera erabakiko da ekipamendua noraino eta zenbaiteraino mantendu.
- C. Apurka-apurka –astiro-astiro bada ere– militar aurrekontua murriztuz joatea, "bakearen bidea"-n alferrikako oztoporik jartzea ekar ez dezan.

Egoera berriaren aurrean –hau da, armen erabilera norberaren teiltatua harriak botatzea delako ustean– erakusten dugun borondate oneko politikan nola edo hala ekitean zerikusirik edukiko duten gai berriak, ez bairik gabe. Arma ez dira jada eraginkorrak ekonomikoki, ezta teknologiaren onerako ere. Gizarteak, ejerzitua "nazioaren eskola" denik ez du jadanik uste; ezta hondamendi edo Hirugarren Munduaren beharizanen aurrean politikaren babesa denik ere. Berez erakutsi zuten behinola ez-eraginkortasuna, baita militar mailan ere.

Bakezaletasuna, jarrera eta mugimendu bezala, gizartearen jokabide guztietan sartuko da eta bide batez, erabaki eta istiluak gainditzeko gai dela, galduta duen lekua itzuliko dio politikari, indartuz indartuz joango den bakearen kulturaren bide-tik.

1.3. Eztabaida eta tirabirak.

Kontuak kontu, ez dirudi gure bizitzetan erabakior suertatuko diren eztabaida eta tirabirarik gabeko 2000. urterik ezagutuko dugunik.

Munduko egoerari gainbegirada hutsa botaz gero, hara zelako egoera daukagun begien aurrean!: tirabirak Estatuaren artean, indar nagusien kontrako borroka armatu

gune ugari; independentziaren alde edo okupazioaren kontra, borroka armatu prozesuak; atzerriaren eskuhartze zuzena, komunitateen arteko eztabaidak eta bost kontinenteetako inguru jakinetan, tentsio egoera, Dena den, tirabirok geldiro-geldiro baretuko direlakoan gaude, bereziki guri dagokigun esparru-esparruan.

XIX. gizaldian eta XX.aren lehen berrogeitamar urteetan, elkarren lehia zebiltzan Estatu subiranuak ikusten genituen Europan. Estatuon aberastasunaren funtsa, norberak norbere kolonietako errekurtso eskasak eta horri esker eskura zituzten merkatuak alde batera utzita, "gehi 0" jokoan zetzan, hau da, Estatu batek aberastasun mailarik gorena beste estatu batzuk galtzearen kontura lortzen zuen.

Gerra aldarteek (franko-prusiarra eta mundu gerrate biak) Bigarren Mundu Gerrak utzitako azken ikuspegiarantz bideratu gintuzten: kolonia galtze azkarrak eta potentzia handi biren jaiotza. Ordurarteko europear potentziak zokoratu zituzten, batzuk EE.BB.-en menpe geldituz eta beste batzuk S.E.S.B.-ren menpe.

Europear Batasuna sortzearen xedea, horrezkero, europearren arteko gerra suntsitzaileen erantzun modura sortu ezezik, europear Estatu guztien kalterako direlako ere. Horregatik, Bigarren Mundu Gerratean, "gehi 0" jokoa alde batera utzi eta "gehi positibo" jokoari ekin zitzaion, hau da, inork ez du jada irabazten aldamenekoa zapalduz, baizik eta denok elkartuz, denok garaile.

Baina "gehi positibo"-ak, subiranutasuna lagatzea eskatzen du eta ondorioz, zenbat eta gehiago egin aurrera lagatze prozesuak, orduan eta Estatu izaera urriago. Zuzendaritza erdirakoidun politika sarea sortzea beharrezkoa da, sare ekonomikoa ziurtatzeko.

Bestalde, teknologia aurrerapenak eta ekoizpen bide berriek, gero eta merkatu zabalagoak eskatzen dituzte. Mugarik gabeko, txanpon bateratu, kanpo politika, defentsa kolektibodun merkatua; guzti horrek aldatuko du eta aldatzen hasia da Estatu-Nazio izenez ezagutu dugun hori. Ez europear mailan soilik; baita mundu mailan ere, betiere, eta batez ere, egun izan diren Estatuak (Hirugarren Mundukoak barne) industrializazio eta modernizazio mailaren arabera.

2000. urteko Europan, barne arazoak itzelean murriztuko dira –normalean, tirabira nazional edo komunitate artekoak– elkarriketaren bitartez eta bertako herri eta nazioen eskariaren erantzun legez etorriko den Europa berria eraikitzeko prozesu politikoa bide. Eskarion artean, bada desberdintasunik. Europear komunitatean, bost edo sei "eskualde" baino ez daude "bere status"-a, hau da, independentzia, egun ulertzen dugun eran behintzat, aldarrikatzen dutenak edo aldarrikatuko dutenak. Europear Konstituzioa era dadinean kontutan izan beharko ditu eskaerok, bai nazio mailakoak, bai eskualde mailakoak izan. Eskualde eta nazioen benetazko eskariak betetzeko ahaleginak egin beharko dituzte, indarreango Konstituzioen gainera irtenbideak bilatuz, batipat bere baitan dauzkan estatupeko erakundeei; Pariseko Diplomatikoaren aurrean Agirre Lehendakariak 1949an iragarri, eta igarri ere, zuenaren antzeko bidea erabiliz.

Horrezaz gain, S.E.S.B.-k, hasi berri duen prozesu gatazkatsuari bukaera emango diolakoan gaude, Federazioa berrosatuz; baita atzerriko istiluetan arma gehiagotan sartuko ez dituelakoan ere. Era berean, gure Herrialdearen geroan zeresanik edukiko duen Latinamerikak, demokrazia formalki ezartzearen prozesua amaitua izango du,

iparramerikaren mutursartzea ezabatu eta Hego eta Ertamerikan egunean dauden gerrila eta borroka armatuak ahulduz.

Hortaz, mende hasera lasaia espero ukan behar dugu, ikuspegi "gardena" Europan, eta elkarriketa erabiliz munduko gainontzeko herrialdeen arazoei irtenbidea topatzeko gogoia asetu. Etorkizun baikorra, europear eta paneuropear prozesuak herri guztiak bere baitara etortzea lortzen ez badu makaltzeko arriskua edukiko duena eta gizarteak gaitzestutako eta argi baino garbiago desagertzera emanak diren zokoratutako gune terroristek baino ezin izango dutena lainotu.

Mendebaldeko herrien, Europa, Japon eta Iparramerikar merkatu berrien (USA, Kanada eta Mexikoren) aurrerapena eta ongizatea urrun dauzkan Hirugarren Munduak alda dezake -itxuraz behintzat ez doakion arren- ikuspegia. "Gutxiengo" sorta horien aurrerabidea, aberats eta pobreen arteko aldea berdintzeko solidaritza eta elkarlaguntzan oinarritzen ez bada, inork ez du aurrera egingo; are gehiago, ezusteko ondorioak ekarriko dituen arazo orokorrean murgilduko gara. Jakinaren gainean gaude, beraz, baina beste zerbait ere ekarri behar dugu gogora: iziotu daitekeen sua indartu dezakete, kultura, erlijio, Ongizate Maila eta demografiarekin zerekusia izaki, azaleratuz doan gorabehera berri bati itsatsi zaizkion tentsio guneak.

Hori galeratzeko, Europaren helburu bakar ez dira izan behar ekonomia eta politika. Begiak historia eta kulturaren ipiniatz, erronka Hego-Iparreik datorren jendea onartuz kultura anizdun herri bilakatzean datza. Zer egin musulmanak "getho"-etatik irten eta kristauen artean nahasteko? Nola atera beren bizilekuetatik baztertuta bizi direnak Ongizatearen Gizartean sartzeko? Gogo biziz nahi dugun geroa eta kulturaren arteko bateraezintasuna bideratu beharra dago: "Gazte langabetu anizdun eta Hirugarren Mundu pobre baina umerik gabeko Europa"-rik ez dugu behar eta ezin dugu hori bultzatu.

1.4. Ekonomia eta Lana.

Ekonomia eta lan munduaren bide bukaeran dakusagun argia, bilakaera azkarra ezagutu duten hiru gertakari nabarmenen ondorio da:

- A. Marxismoaren gainbeherakada, eta gehiago oraindik, baita sozialismo ortodoxoarena ere.
- B. Ekonomiaren orokortze eta nazioartekotzea, enpresak, tokian tokiko mugak gaitzestuz.
- C. Industri ekonomia gaitzestuz duen jakintza aroa.

Hiru gertakari nabarmen, zalantzarik gabe, kasuan kasu aztertzeak baina elkar-tuz gero, egoera orokor berria sortuko luketenak.

Berlineko hormaren erorpena, mezu sinboliko hutsa baino zerbait gehiago dela-koan gaude. Ez da politika pentsamolde edo gizarte berriaren iragarpena bakarrik; ekonomi sistema berriaren onarpena ere bada.

Ekonomi teoriaren funtsezko osagarri zen marxismoaren porrotaz ere mintza gaitzeste; ekonomia antolatua begibistako eraginkortasun ezak, orduan ekonomia antolatutaz hartzen zuten horrena bederen (ez ekonomia antolatua soilik, lehentasu-

nak ematen zituen ekonomia hori ere), enpresa eta lan munduan askatasun eta norbakoaren motibazio galtzeak, ekonomiari ate berriak zabaltzera behartzen gaitu.

Hortaz, ekonomi liberalismo berriaren abiada biziak ez gaitu harritu behar, askok askatasun hau txartzat hartu duten arren; horrekin batera, kapitalismoaren ordainaz berba egin beharko genuke, bere nagusitasuna erakutsiz. Sasi-nagusitasuna, ezen, egia bada ere sozialismo ortodoxoak porrot egin duena, ez bait dugu ahaztu behar kapitalismoak bide bera jarraitu duenik. Oparotasuna, bakea, justizia eta ekonomia eta gizarte ongizatea nagusi diren mundu berri, solidaria sortzeko amets eta printzipio baliagarrien aurrean, sozialismo eta kapitalismoak ez dute beste irtenbiderik eduki, haien aurrean makurtzea baino. Merkatu ekonomiaren aginpean eratu diren mendebaldeko gizarte gehienek gobernuen filosofiak ere, hura dute gaur oinarri.

Horrezkero, testuinguru horren inguruan dago eta egongo da, bere buruaren kalterako gizarte askatu nahian ibili baina usteak ustel gertatu zaizkion dotrina menperakoi horren desagertzea; bide batez, gobernu, Estatu eta azken finean, sektore publikoaren zeregina noraino ailegatuko den neurtzeko beta emango du.

Inguru hori zehazteko, komenigarri begitantzen zaigu honako hau gehitzea: mundu osoaren irabaziak ez dira egundo berdinak izan behar. Ekar dezagun gogora aipatutako Triadako gizarteak onik aterako direla XXI. gizaldiaren mugan; hala ere, horrek ez du esan nahi banaketa erabatekoa izango denik. Aberats eta pobre, aurrerabide geldo eta azkarreko inguruak izango dira, eta beraz, gobernuak erabakior jokatu beharko dute "ongizatearen gizarteratzea"-n oinarrituz eta ez pentsakera neo-liberalaren garaipenean. Erronka ere badakar berarekin: Ekialdeko herriei EZIN diegu merkatu ekonomiaren garaipena saldu, zokoratutako gure auzoetara ongizatea eramateko gauza ez garen bitartean.

Nabarmenezko moduko bigarren aspektu honek harremanen esparrua itxuratuko du: ekonomiaren etengabeko nazioartekotzea. Euzkadin ohiartzun handia izango du. Munduaren joera berri hau berebiziko elementu hauen erdian gauzatu da:

- 1) Europa barruko merkatua mamitzea; 2000. urtean 320 miloi kontsumitzaile edo E-12 edukitzeaz gain, nola edo halako harremanekin, erakunde berezia osatua izango du, EFTA-ko herrialdeak eta neurri batean europar Ekialdekoak batuko zaizkiola.
- 2) MERKATU OSO-aren jaiotza, ekonomiei beren mugaz gaintzi abiatzea beharrezko zaielako ustean, merkatu jakin eta espezifikoen batuketa bezala ulertuta eta ez merkatu bakar modura. Inbertsio, lan emankor eta benetako ekonomiaren nondik norakoak hainbeste eta gehiago, diruaren joan-etorriak mugatuko du kanpora irtetzea ala bertan geratzea.

Aldaketaren izena eta izana eskura dituen hirugarren aspektu bat itsasten zaie aurreko biei: industria-osteko ekonomia edo jakintzaren ekonomia. Zer esan nahi du horrek eta non kokatuko gaitu 2000. urtean?

Hainbeste denbora itxaron gabe, jada gaur ekonomia desberdina dugu, nahiz eta haren nondik norakoa azaltzeko teoria klasikoetara jotzen dugun eta aldagarri zaharkituekin neurtu.

Trukaketa askearen egunean eguneango nazioartekotzea, lan, ekoizpen, lehia

mota desberdinez ari gara eta oraindino, horregaitio, joan den mendeko erreferentzietara jotzen dugu!

Gaur eta bihar, ekoizpen eta lan kontzeptuak ez dira sinonimoak izango. Ekoizpen eragile (lur, lan, diru) bat berak ere ez du lehia aginduko; ezta enpresa baten, eta ondorioz, nazio baten lehiakortasunean ere. Aurrerantzean, ezagutza, "management", eraberritzea izango dira berebiziko. Egunean egunean aldatuz doan eragilea, beraz, esan dezakegu merkatua ekinaren ekinez irabazten dela, egunez egun.

Guzti horrek etorkizunari buruzko zenbait gogoeta egitera bultzatzen gaitu:

1. Lanaren etika

Egunean-eguncan, ekonomia arloan leku egiteak lan nekeza eskatzen du. Lanaren etikaren barruan baino ezin ulertu daitekeen lana. Lanean egiten diren iruzurrak, azken batean, konpromezurik eza, lanera egokitu ezina, erantzunkizunei muzin egitea, kalitaterik gabeko lana, egindakoarekin ase ez gelditzea, lanak eskatzen duenaren gainetik kobratzeak, lanetik kanpo geratzea dakar azkenean. Pentsakera hori, garesti ordaintzen da eta ordainduko ere aurrerantzean. Hazkundera eta ongizate ekonomikoa langabeziarekin kideru eta elkar egokituko dituen gizartean garatuko den lana. Langabeziarekin, ez langabezi kopuruarekin, ezen, ez bait dago kopuru zehatzik ematerik langile/langabetu bikotea ez baita neurtuko zenbakitan, kalitatean baizik. Langabetu orok behar du lanen bat baina kasuan kasu eskatzen dutena begiratu beharko litzateke: bizitzeko aina besterik eskatzen ez duenik bada eta oinarrizko beharrezkoen gainetik lana behar duenik ere; aldi berean, enpresek, lana ekonomiaren beharrezkoen aurre egiteko baino behar ez duen jendea barik, beste koalitate batzuren jabe direnak gura izango ditu. Eta horrek –aurrera goi ikusiko dugunez– "jende ikasia" eta ondorioz, hain beharrezkoa nola alboratua dagoen hezkuntza errotik aldatzea eskatuko du.

2. Giza Errekurtsoak lanean jartzea

Gizarte berriak beharrezko ditu jarrera, balore eta ezagutza berridun gizakiak. Honela, bada, bihar inoiz baino gehiago, bene-benetako eragile gizakia bera izango da, gizarte eta enpresa bultzatzaile bakar. Bizi zein "bizimodua irabazteko" pertsona heziak behar izango ditu gizarte berri horrek. Hortaz, "ikasi ikastearren" topikoaren-tzako lekurik ez da geldituko.

"Zerbaitetarako", oinarrizko heziketatik hasi beharra dago. Informazio Gizarte batetako eragile berrien erabileraren gaineko ezagutza sendoak bultzatuz, norbere historia eta kulturaren berri sakonaren bilakaera den kultura orokorraren ikuspuntutik. Ez eskolan hasi ez bertan amaitzen den heziketa, "bukatzat" ezin inoiz eman dezakeguna, etengabeko ahaleginez eskuratzen dena eta helburu soziala duenik ahaztu behar ez duena, beraz, balore eta pentsamolde eta guzti.

Giza Errekurtsoak lanean jartzea, horrezkero, heziketa aldatzean datza. Mundu apartekoa bailitzan egungo anabasazko sistema arautu nahian, ohizko eskolako irakasleentzat ikastaroak antolatzen, errekurtsuak alferrik galtzen ditugun bitartean, lepoa ematen diogu benetan gertatzen denari, eta batipat, etorkizunari. Gaurregun, aro psikologiko eta gizarteari emankor suertatzen ei zitzaizkiolako edo ezarri zen heziketa aroa, zaharkitua geratu da: aintzina (gaur ere horren aldekorik egon dagoen

arren) gizona informazioak irenstera joan ohi zen eskolara (eta ez derrigorrean, ikastera), heziketa aroa bukatutzat ematen zuen lanean hastean. ezer edo ezer gutxi aldatzen zen, lana betetzen zuen jubilatutako arte eta une hori ailegatu eta, ezertxo egin gabe amaitzen zuen bizitza, heriotzean. Aitzitik, gaurko egoera bestelakoa da: lana aurkitzeko suertea dutenek, jakin dakite zalantzatan biziko direna. Ondotxo dakite hirulau ogibide –ez lanpostu– garatuko dituztena eta "bizimodua ateratze" horrek orainarteko oinarrizko-hezkuntza aroa apurtuko duena. Jendeak, eskolatu beharra dauka lanean ikasi ikasten jarraitzeko, handik kanpo eta biziak dirautson bitartean ezagutzak eskuratzeari ekiteko; baita bete-betean ikastera eta bete-betean lanera zuzendutako aroak tartekatu beharra ere, lan mundutik aldentu eta, 20 edo 30 urtez gizartean parte hartuaz irauin, seguruenik ere iharduera gehigarriren batetan.

Heziketaren erreferentzia bakarra den eskolak, ez du jaso oraindik orain eskema berriaren testigua. Barne-barneko filosofia, sistema zaharraren eragileak eta azken helburuak aldatzen ez ditugun bitartean, aurrerapenaren ateak sarritan jarraituko du. Ez da aurrerakuntzarik gertatuko ez ekonomia mailan, ez politika arloan, ez gizarte mailan, ezta...giza mailan ere.

3. Erakunde berri eta ekonomi unitate berrien bila

Aurreikusitako ikuspegi berriak gizaki eskolatuetan oinarritutako ekonomia ekarriko badu, antolapide eredu eta legezko ekintza guneak aldatu beharko.

Esan ere esan dugu orainarteko aldagarriak baliogabeak direla, erakundeak ere badiren moduan.

Merkatal Elkartrukaketa, aldi berean gehigarria, lehiakorra eta lehiakidea izan dadila nahi izanez gero, eraberritu egin beharko dugu; enpresa eta nazioen arteko elkarrenganako menpekotasuna ezinbesteko baldintza bada, eta harremanak aldatu egin beharko ditugu; Eskualdeetako Merkatuak eta Gainejitura Operatiboak ezagutu eta baitaratu behar badira, gaurko eskemak baliogabekotzat hartu behar; merkatua, orokorra bezain tokian-tokiko izango bada, erantzuna eta aldatu beharra begi bistan.

Honela, bada, egunean baino eguncan malguagotuz, burujabetasuna lortuz eta sistematizatuz joango diren unitate ekonomikoen itxuraldaketa, ekonomi sistema berriaren gurrpilean sartu beharko, ezen bakoitza bere bidetik joaterik ez baita izango. Lau antolakuntza maila baitaratuko dituen sistema berriaz ari gara:

- A. Lehenengo maila, oinarrizkoa: erabaki enpresarialak eta makroekonomikoak.
- B. Kasuan kasu, "Nazio" edo "estatu" mailara mugatuko ez den egitasmo makroekonomikoa, baizik eta *ESKUALDE* izaera edukiko duena, berbarentzat zientzia: azpisistema eta gaininguru estatuala, eremu homogeen kontzeptu berriaren inguruko estatu-nazio desberdinak bere baitara ekarri.
- C. Nazioartera zabaltzen diren enpresen ekonomien antolaketa propioa eta ingurune berria.
- D. Munduko ekonomiaren ikuspuntutik eraturik, sare orohartzailea.

XXI. mendeak, beraz, ekonomia berriaren garapenerako ikuspegi juridiko eta politiko eraberritua eskainiko digu. Burutzeko daukagun gaia. Pertsona, pertsona

legez bultzatzen duen inguruan eratu behar dira erakunde berriak, industriosteko edo ezagutzaren aroaren berezko lan sistema. Printzipio berrien giroko erakundeak, benetazko partehartze demokratikoan errotuak, eta mailakatutako eta agintekeriazko eskemak aldatuko dituztenak.

Berriro ere, unitate txiki, malgu eta aldakorren garaia etorriko da. Erkidetutako egitasmoenganako atxikipenaren ondoriknahiz borondatezkoa –nahiz iraunkorra– sortuko dira erakunde bateratuak, non pertsona eta taldeak bultzatuko diren, ordutegi, eginbehar eta ohitura zehatzik egongo ez den baina denon artean aurrez jarritako helburuak lortzeko hitza beteko duten partaideek eta bilakaera eta etengabeko kontrolak gauzatuko. Lanean, autoestima izango da nagusi, ondo egindako lana hartuko da aintzat, kalitatea eskatuko zaio prozesuaren atal bakoitzari; bestalde, eskaria eta merkatuaren beharrak asetzera baino ez da zuzenduko ekoizpena.

Sistema itxura-askotariko eta konplexuek, bere baitan hartuko dituzte unitate txiki horiek. Hala ere, enpresa mundura mugatu gabe, Administrazio Publikoetan izango dute zeresanik, aldaketa baino, benetako iraultzari ekingo dioten Administrazio Publikoetan, hain justu. Agiri honetan, garrantzia garrantzi, aparteko atala eskainiko diegu prozesu horri.

4. *Ekonomiaren berrindustrializazio maila bultzatuz*

Balitzko inguruaren aurrerapidea izan dugu aztergai orain artekoetan, zerbitzuen ekonomia bultzatuko duten industriosteko gorabeherak aztertu ditugu eta gaur arte ez bezala funtzio desberdinak betetzeko gai izango den pertsonak burutuko duen lanaren antolaketa berria ere ez dugu alboratu. Egia ez bada ere kontraktotzat aurkeztu diren kontzeptu biren (industria-zerbitzuak) erabilerak eta azaldutako guztiak, azterketa desbideratu dezakete. Gaurdaino estrukturalista eta jarraipenezko egitamuek indarra eduki badute ere, datorkigun ikuspegi berriak bestelakorik antzematen du. Orain arte, mailaz maila joan da gizona historian zehar: hastapenetan, oinarritzko sektorearen inguruko iharduerak eta ekoizpena; beranduago, industrializazioa eta azkean, aurrerabidea, modernitatea eta zerbitzuen sektorearen garapena.

Ekonomiaren berrindustrializazio maila bultzatzea, gizarte industrialen garapena, posible izateaz ezezik, beharrezkoa ere bada. Ezagutzaren teknologiaren aroa, jada nahikoa industrialdutako gizarteetan baino ez da gauzatuko, zerbitzu aurrerakoen eskale diren horietan. Horrela, bada, jada gaudituta dagoen teoria klasikoan –zeinak dion “*garatu gabeko herrialdeei*” ekoiztea dagokiela– oinarritutako mundu antolatutarik ez da izango. Egia da baita ere, industria ekoizpenak orain artekoarekin antzik ere ez duela izango. Antolapide eta ezagumen printzipioei produktu eta ekoizpen prozesuaren susterreko aldaketak atxekiko zaizkio. Materiale eta diseinu berriak, management garatua eta azken finean, ezagutza lanaren zerbitzura jartzeak, industri mundua itxuraldatuko dute.

Baina, batez ere, ez dezagun ahaztu Ekonomia Orokorra, Eskualdeko Ekonomia Osoek eutsiko dutela. Ekonomia nazioartekotuak, iharduera desberdin askoren ekinaz gogortuko diren oinarri ekonomiko “*herritartuak*” eskatuko ditu egunean baino egunean indartsuago.

Horrezkero, euskal gizartea bezalako gizarte industrialduak abiapuntu sendoa du

ekonomia berri horren gurpilean sartzeko. Industria sektorearen eragina, gero eta txikiagoa –langile gutxiago edukiko dituelako– izatea, beste kontu bat litzateke: ekoizpen unitateak txikituz joango dira, itxura batean orainarteko produktuak egingo ditugu (autocn osagarriak, esaterako) baina modu desberdinean, teknologia desberdinekin eta langile desberdinek osatuko duten lantegietan. Abiatu da bai, aldaketa; erronka kilikagarria, geroa eskura edukitzeko aukera alde batetik baina baita mehatxu gordina ere. Bihur dezagun mehatxua datu huts, bikoiztu ditzagun eginahalak amets huts ez den etorkizunaren alde.

5. *Begi aurrean ikusiko duguna. Merkatu ekonomia*

2000. urteko ekonomia, merkatu ekonomian oinarritutakoa izango delakoan gaude.

Dokumentu honetan zehar ikusi ahal izan dugunez, etorkizunak ez du defendatuko “*ordaintzeko moduko kostuak*” delakotik etekina ateratzen jarraitzen duten Estatu Babestaile edo Ongilerik, gizarteari berari doazkion eginbehar eta funtzioak betetzen dituen Estaturik. Esan beharrik ez dago zer nori egotzi, merkatuak eta merkatuaren legeek erabakiko dutena. Dena den, egoera hau ez da, eta ez da izango bateraezina bere egunean “Gizarte Ongizate Estatua” deitu ziztaion harekin.

Gainera datorkigun geroak ez dio inori lehentasunik emango. Merkatua ez da izango beraz, proiektu ororen erantzule bakar. Gaurko Administrazioa, bere antolaketa eta batipat sistema marxista edo estatalizatzailearen ezina agerian jartzeak ez du esan nahi botere publikoak zokoratuko direnik. Alderantziz, Administrazio Publikoek beren ardurapeko bizilagunen duintasuna bermatu beharko dute, lan munduko haien emankortasun edo ihardueren gainetik, baina gizartearekiko solidaritzaren alde, lanerako etikaren orokortzean parte hartu behar dutela ahaztu gabe.

1.5. *Ikuspegi Politikoa.*

Geo-Politikari eta Ekonomia eta Lana arloak arautzeari eskaini diegun atalean ikusitakoa hausnartuz, “*ikuspegi politikoaren*” haria aurkitzea zaila denik ezin esan. Estatua eta berorren jokabidearen gaineko zertzeladak ematea dugu helburu, herri eta jende desberdinez osatua egongo den administrazio eta justiziaren aldaketa zertan datzan, botere publikoaren jokaera, eta ze ondorio ekarriko dituen.

Bestalde, ikuspegi berrioren barne azterketa agortzerik ez dugu nahi. Berebiziko osagarrien garrantzia garrantzi, banan banan jorratzea begitandu zaigu, 2000. urteko zelaian jokatuak duten jokalarri berri edo laguntzaileak, besteak beste.

Estatuaren rol-a eta Erakunde politikoak.

Ingurune politiko-administratiboa zeharo aldatuak egongo dira 2000. urterako. Gure inguruan, Europako Estatuaren Batasunaren jaiotza ikusteko aukera izango dugu, ñabarduraz beteta agertuko zaiguna, hain zuzen. Ausartegi iruditzen zaigu gaur eta hemendik, gure kanpo harremanak zertan izango diren esatea, zein “*konstituzionalizazio*” mailan gauzatuko diren aipatzea. Kontuak kontu, ordurako, Europa merkatu huts baino zerbait gehiago izango da. Aldaketa prozesu sakon baten barruan murgil-

duta ikusiko dugu geure burua, harreman eta elkarrenganako menpekotasunean oinarritutako sistemari atak irekiko zaizkiolarik. Ondorioz, ezbairik gabe, istiluak, pertsona arteko tirabirak zein politikoak edo "nazioartekoak" bizi izango ditugu. Nolanahi ere, herrien berezko harremanen garaia etorriko da, ohizko beren iharduerena; ez hainbeste historiako une jakinetatik eratorritako "naziotasuna" sendotzen duten erabakiak.

Estatuen ahotsak jarraituko du nagusi izaten baina "herriena" aintzakotzat hartuz joango da gero eta gehiago. Jatorri desberdinetako ahots ugari (baten batzuk printzipio eta pentsamolde abertzalearen ikuspuntutik, beren izena eta izanaren indargarri; gehienak, ordea, etorkizunari aurrea hartuz, pragmatikotasunean oinarrituta, homogeneitate "operatibo"-an, politiko eta administrazioaren eraginkortasuna ikusten dutenena; baita beren inguruko bizilagunen arazoan irtenbide ere), mundu berriaren eraketan lehentasuna aldarrikatuko dutenak.

Hortaz, nazionalismoen garaia. Baina, erne!, historian funtsa duten nazionalismoena, sustraiak finkatuta eta batez ere, geroaren alde direnena. Uste den bezala, XIX. mendeko Estatu-Naziorik egongo ez den heinean baretuko dira "Nazio versus Estatu" eztabaidak. Batzuk aldatu beharko badute, besteek ere bai.

Eskema berri, hots, datorrena datorrela onartuz, hurbileko erabakien eta haien kontrolaren inguruko politikara begira jarriko ditugu begiak, egunean egunean zabalduz joango den partehartze ordezkatuan, errealitatearen ezagutza hobean, nortasuna sendotu, kultura eta munduari atak irekitzearen asmoan. Gure herriaren berezitasunak aberasten dituen ikuspuntua, zinez, bere uniberteltasuna albora utzi gabe baina.

Inguru horretan zertu beharko da, era berean, politika antolaketa.

Esana dugu lehendik ere, "Ezagutzaren Gizartea"-ren oihartzuna gobernu eta partidu politikoetaraino iritsiko dela. Aldaketak barik, iraultzak babestua etorriko da gizarte hori. Iraultzak, halaber, funtzionario eta politikoen arteko tirabira eta ikusiezinak ekarriko ditu, gizarteak ere bere burua haietan murgilduta ikusiko duela; muzin egiterik ez du izango.

Ahalik eta kostu txikien eta kalitate oneko zerbitzuak eskatzen dituen gizartearen pentsatzerik ba al dago? Administrazioan hasi eta bizilagun ororen duintasunaz berba egiterik? Lanerako gai den biztanlegoaren eskariak ezezik beste zerbaitek ere eskatzen duen ekonomian? Politiko zein funtzionario, profesional guztiak kualifikatu eta lehiakortasunean, egunean egunean, abiada bizian aldatzen doan inguruan, XIX. mendeko Administrazio Publikoarekin bateragarri? Bizitza osorako lanari makurtu eta momentuan momentuko inguruaz ahazten den gizarteaz, egitura zaharkituak dituen horretaz berba egiterik ba al dago? Erabat ziur, EZ.

Herritarren botuari esker heltzen dira politikoak Administrazio Publikoetara, denoi dagozkigun arazoak konpondu eta gizartea mundu berrirantz zuzentzeko. Gobernuan "agertzen" dira "aldarteko" bezala, baina funtzionarioak iraun bitartean, ez da horientzat lekurik izango. Gizartea orokorrean, funtzionarioago, agintariak eta doazkien partidu politikoak, sindikatuak –geroago eskainiko diegu atal bat–, denek eman behar dute mundu berria antolatzeko hitza, kasuan kasu –huts-hutsean– daukan egoera kontutan hartuta, denon onerako suertatuko den ONGIZATEA-ren zerbitzura buru-belarri makurtuz. Erantzunkizun politikoa denona da, ez bakan batzurena.

Batez ere ESKUZABAL izatea eskatzen du aldaketa honek, egoera jakinci –inoiz edo behin pribilegiozkoak izan daitezkeenak– uko egin beharko zaizkiela; hezkuntza, motibazioa, eraginkortasuna, ogibide publikoen profesionaltzea, haren malgutasuna eta norbanakoek jagoten duten merkaturako bidea zabalduko dizkigun oinarritzko antolaketaren legetarantz jo beharko du aldaketak.

Ekonomiaz aritzean, geroa betiko aldagarrien arabera neurtzea zilegi ez zela esaten bagenuen, gobernuak ez dira salbuespen. Gaur, XIX. mendeko eskemei jaramon egiten diegu oraindik gobernuak eratzeko, legez kanpoko "zelula malguak" erantsiz gorabehera berriak, aurrerakoiak, Administrazio klasikotik at gertatutakoak erabakitzeko, baina, betiere "konfidantzazko" edo "bereziak" noski.

Zertarako zaigu baliagarri araupeko antolakizuna? Zer dela eta "eskaintzen" dugu guztien "partehartzea" garrantzi eskaseko gorabeheretan eta garrantzitsuenak erabaki pertsonalen, "errementari", "aholkulari"-en esku utzi? Mundu berria, politika esparru berria eta gobernu berriak 2000. urterako. Has gaitezen, berandu gabilta eta. Bada garaia.

Eta partidu politikoak, zer?

Ikusiko dugunez, ez dira 2000. urteko "jokalari" bakarrak izango. Antolapide haize berriak astinduko ditu, herritarren ordezkaritaz arduratuko diren mota askotako herri-erakundeak loratuko dira "gehigarri" modura, edo zergatik ez, haien "ordezkari" bezala; erakunde jakin eta norbanakoaren interesen defentsan jaioko diren taldeekin –komunikabideak barne– lehiatu beharko dute.

Guzti horren aurrean, antolaketa aldatu beharko dute partiduek, gainontzeko talde sozialekiko harremanak, kargu publiko eta agintarien erakarketa, bultzatze eta banatzeko erabiltzen dituzten bideak ere; demokrazia parlamentari sistemaren errotuko den inguru politiko-administratiboa eraberritzeko ahaleginak egin beharko dituzte, beren ekintzaileen lana eta konprometzua aberastuko delarik. Guzti hori jorratuko da zehatz mehatz Alderdiaren Batzar Orokor honen aurrean jada aurkeztua dagoen beste ponentzia batetan: "Euzko Alderdi Jeltzalearen etorkizunerako ikuspegi berriak".

1.6. Laguntzaile berriak. Jokalari berriak.

"Jokalari berrien" presentziak urratuko da XXI. gizaldia, zalantzarik gabe joku politikoan berebiziko eragina izango dutenak –hasiak dira jadanik–.

Pentsamolde, eztabaida ekonomiko-sozial, nazionalismo, Estatu eta Gizarte eredu, gizonaren zeregin eta erakunde politikoak, gizarte berriaren bideratzaile modura, den-denak harrapatuko dituzte –onerako, gehienetan– jokalari berrien gurdiak; loratuz doazen taldeez hitzegitea zilegi da, "bapateko demokrazia" gehitu behar diegu "antolatutako demokrazia edo araupekoa"-ri. Ingurune honetan, bada, lau jokalari nagusi nabarmendu beharko genituzke:

1. Erlijioa, bere erakunde ugarien bidez.
2. Komunikabideak.
3. Berarizko herri erakundeak.

4. Ekokultura, bere biltze-ekinbideen bitartez.

1. Erljioa

Erljioa sakontasunez aztertzea eta 2000. urterako haren ikuspegiak zehatz esatea ez da gure helburua. Zernolako eragina duen gizonarengan, eta hedapenez, erljioaren zeresana berebiziko aldagarri modura, hizpidez, ezaugarri jakinekin, politika mailako inguruan eta erabakiak hartzeko orduan.

Baretasunezko munduaren oreka apurtzailea erljioa dela esaten dutenen berba isiltzeko, gizonaren izatea eta bere

gorabehera handiko egitekoaz ohartarazi behar ditugu. Gizona "izaki" materiala, dagokion munduarekin eta "egokitza" daukagun bertako sistemarekin bat datorrena dela baieztatzea, solidaritziarik eta tolerantziarik eza eta ideien gaitardura errespeturik eza areagotzea besterik ez da. Alderantziz, ordea; gizonaren baloreak berreskuratu eta gizona eta bere ideia, kultura eta jainkoak topo egin beharko dute aurrerantzean. Beste kontu bat litzateke sentimendu faltsua, erljioa berari ez dagozkion helburuetarako erabiltzea, adierazten duenaz eta daukan baloreaz abusatzea eta integrismo edo fundamentalismoa. Sasi jokabideak, zeinek, zoritxarrez, gainera datozkigun gertakiaritan zeresanik aski edukiko bait dute.

Aldi berean, Eliza mota desberdinetan aldaketak gauzatu beharko. Munduan, denborazko antolaketari doakionean, ez daude isolatuta; aldaketetan partehartuko duten gizon eta emakumez osatuak daude. Kasuan kasu, prozesuan murgilduta egoitea dakar horrek. Gizartean erljioak duen eragina eta partehartzea, politika kontuetan ematen dituen erljiak, hezkuntza eta lan munduan duen lehenetasuna, erljioak sortzen duen aberastasuna eta haren banaketa, itxuraz hari dagokion arren, benetan haren mugaz gaindi dago. Horren parean, loratzen hasiak diren mugimendu karismatikoa, buruzagitzarik ezak, gainontzeko politikaritan ez sinesteak, bakoitzaren elizan sinesteak, gizonaren bakardadea eta noraezak, bene-benetako bidetik joan beharrean, bidegabekeria nagusitzea ekarriko du zenbaitetan; horrek, ez bairik gabe, negatiboki astinduko du gizartearen ideologia.

Beraz, nolakoak izan mende hasierako erljio eta bere erakundeak, halakoak politika mailako erabakiak.

2. Komunikabideak

Orainarte "Laugarren Botereaz" eta Komunikabideez luze eta zabal hitzegin bada, aurrerantzean, informazio eta ezagutzaren gizartea finkatzean, haien zeresana hazi egingo da.

Agiri honen bitartez, jakinaren gainean jarri nahi zaituztegu aurrerantzean komunikabideek izango duten lehenetasunaz. Komunikabideek sortzen duten eraginaz, eta, batipat, haien erantzukizunaz. Gogora dezagun Komunikazioa bera prozesu luzea dela: informazio iturria edo mezua kaleratu, mezua bera, berria zabaltzeko erabili ohi diren baliabideak eta mezua hartzailea. Prozesu luze horrek, teknologia xume edo goimailakoak ezezik, gizonaren partehartzea baitaratzen du; gizakiarena, gizaki den aldetik. Heziketa maila handiago ala txikiagoarekin, kualifikazio handi edo ez, berba,

idatzi edo gureganatzen dutena ezagutu eta sinistu ala ez; norberaren interesen arabera ala ez; ideologia jakinarekin, sentimenduekin, kemen edo ahuleziaz, zerbaitengana atxekidura edo ezinikusiarekin. Gizaki eta erakunde guztien gorabeheretan zeresana duten pertsona edo talde jakinen komunikabideetan lan egiten dutenak. Eragin jakina eduki lezaketan komunikabideak.

Etorri datorkigun egoera honi, maiz ahanzten duguna, mezua ematerakoan egiten diren desbideraketa edo "zarata" gehitu beharko diogu. Eskuztapen jokabideak egunean egunean joango dira loratuz. Eritzi-talde oro, partidu politikoa, Administrazio, enpresa..., den-denak daude prozesuan nahastuta. Asmo onarekin ala txarrrarekin. Mezua berez "desitxuratze" joerarik bada; ezkutaketa, ahopeko informazio, filtrazio, aizunketa, denongana iristen ez diren bideen erabilera, informazio iturri eta datuak zalantzetan jartzeak eta abarrek gehiago desbideratu dezakete, gainera. Ezagutzaren Gizarte berria berez zalapartatsua bada, aipatutako egoera guztiekin pentsa nolako izan litekeen! Izan ere, "Bapateko Komunikazioa" nagusi duen gizarte horrek, errealtatea inoiz baino hobeto ezagutzen dugula sinestazten digu, hain baten sinesgarritasuna zalantzetan jartzen denean. Telebistaz bota zen lehen gerratean -zentsura tarteko-, hots, Golkoko Gerran benetan gertatu zena ba al dakigu? Ba al dakigu zerbait hari buruz?. Gaur eta bihar, telebista, ikusi ezezik, irakurri egiten digu; prentsa idatzia, irakurri beharrean, ikusi egiten digu; informazio iturriaren fidagarritasuna zein den jakin gabe, mikrofonoa aurrean daukan edonork komentatzen digu berria irratian.

Azken finean, jokalarri berri ditugu komunikabideak, askatasuna eta ezagutzaren alde egitea eskura dutenak, baina betiere, eratuako duten ingurua arriskuan jarri dezaketela ahaztu gabe.

3. Gizarte Mugimenduak

Geroan zeresana edukiko duten gizarte mugimenduak zenbatuezinak izaki, bakarren batzuk aztertzea begitandu zaigu:

A) Sindikatuak,

Jada inolako zalantzarik gabe, erakunde demokratikoetatik eraginkorrenetariokoa, Langileen Sindikatuak, norabide berria hartuko du.

Egoera desberdin biren aurrean daude jadanik Sindikaritzaren Elkarteak: alde bate-tik, historian zehar irabazi duten lehenetasunari esker, beren eragin eremua errealtate-tik kanpo dago; bestetik, lan munduan lehenetasunari eutsi nahi badiote, egitura erabe-rritu beharko dute aldaketak onartuz.

Aldakuntzak ez dira halabeharrez suertatzen. Sozialismo ortodoxoa, gizarte mailakak, langilegoa eta industri aroa, behinbetiko lanpostua, higikortasunik eza, industri erakundearen antolakuntza zehatza, kapitalismo basatiaren gehiegikeriak eta abarrek lan mundua eraberritu duten moduan, Sindikatuak, langileen eskubideen defendatzaile bezala, eraberritu beharko dira. Eta hala egingo dute.

Mende hasieran, industrian ihardutzen zuen langile kopurua itzelean murriztuko da. Heziketa, lan, motibazio eta ordezkari desberdinak edukiko ditu. Norberaren lan-

postuan, inoiz ez bezalako lehentasunaz eta lan baldintza egoeraz norbera kargutuko da; azken ekoizkina, haren esku egongo da huts-hutsean. Horrekin bat, Administrazio Publikoa ere aldakuntzaren gurgilari lotuko zaio, esan ere esan dugunez. Gizartean lan egingo duten funtzionariak zerbitzua hobetuz joan daitezela eskatuko die gizarteak apurka-apurka; baita betetzen duten lana eta diru-sariak hobeto kontrolatzea ere. Erakundeak txikiagoak eta nazioartekotuagoak izango dira.

Aldi berean, enpresen jabegoa gero eta zehaztugabeago egongo da. Management-a, zuzendaritza, diru eta lanaren ordezkariak eta kudeaketaz arduratuko da. Zenbat eta handiago izan enpresa bat, orduan eta aukera handiagoa *"baltzuduna edo ohizko diruduna"* langilea bera izateko..., konturatu barik bada ere, pentsio fondo eta aurreikuspen erakundeetako bere partehartzea bide. Hau da, ohizko sindikalismoaren (desagertua ez bada behintzat), hondar-hondarrak baino geratuko ez diren mundu berria ezagutzeko aukeraren aurrean.

Beharizanaren beharraz sindikalismoa berrasmatu beharko da. Historian zehar egin dutenagatik egun haren eskakizunak lege badira, aurrerantzean garrantzia irabaziko dutelakoan gaude. Tirabiren baino harremanen ildotik, management-aren kontrola izango dute helburu; egunean eguneango lan baldintzen hobekuntza baino, unitate ekonomikoen azken helburuetara mugatuko dira, globalitateara eta ez kasurik kasura, lan mundura eta ez hainbeste politikara.

Ezinbesteko jokalaria eskenategi berrian.

B) *Bapateko mugimenduak edo loratuz hasiak direnak.*

Datozen urteetan, beste jokalaririk ere agertuko zaigu indarrez, jada loratzen hasiak direnak edota gure gizartean oraindiko hain sustraituak ez daudenak.

Etorriko den gizarte eredu malguak, kezkatzen gaituzten arazoei irtenbidea zuzenean aurkitu asmoz, helburu zehatzak dituen taldea bere antolaketa arduratzea erretuko du. Borondatezko taldeak, bakearen aldeko erakundeak, mota askotariko kooperatibak, elkargoak eta beste, azaleratu egingo dira. Egoera horrek, bada, aldeko eta kontrako eritziak sortuko ditu. Aldekoak, lehentasuna, konprometua eta kideen erantzunkizuna berreskuratuko dituelako gizarteak, hots, denon parte hartzea; kontrakoa, libre, bapatean eta *"aurrera"* egiteak eraginda jaioko ez denik ere izango delako. Askok eta asko zenbait arazoirekin ezkutaleku besterik ez dira izango, dela ordezkariak eskasa dituelako, dela azken helburuak jakitera emanez gero gizarteak arbuia-tuko dituelako.

Mugimendu mota horien loratzea dela eta, erakunde formalak, bereziki partidu politiko eta gobernuek, ahaleginaren ahaleginez beren antolapidetza edo harremanezko eskemen baitara ekarri beharko dituzte haiek.

4. Ekokultura

Indar handiz, EKOLOGIA lehen jokalaria antzera dago.

Tirabira, eskuztapen eta izadiaren helburu zintzoaren (izadia babestu, jagon eta gorde) kalterako baino izan ez diren sasi-jokabideak alde batera utzita, EKOKULTURA-ren berebiziko eragina izan beharko genuke kontutan.

XXI. gizaldiko gizarte berriak ekologiaren alde egingo du, ez gehigarri, baztertutako zerbait edo objektiboki *"zuzentzat"* dauzkagun erabakiak *"nahastera"* datorren gaitz modura, baizik eta gure bizitzan iraunkorra izango den zerbait bezala. Ekonomi edo enpresa munduko erakundeetara eramanez, edozein iharduera legez, haren kostuak ere baitaratu beharko dira, eta ez gehigarri gisara erantsi, denon erantzunkizun den aldetik.

Hein handi batean politikarekin dauzkan harremanak eten eta gizartean errotuko da, ekologiaren erantzunkizuna kide guztion esku egongo delarik; hori ikusteko aukerarik ere izango dugu aurrerantzean.

Baina, une hori heldu bitartean, bide luzea ibili behar, luzeegia. Erakunde politiko eta gobernua, hartaz kargutu beharko dugu zirt edo zart. Industria edo azpiegitura proiekturik aurrera eramateko gai ez gara izango, harik eta elkarriketa eta elkar ulertzea (ekokulturaren argizaitze izatearen ikuspuntutik) gure lan egiteko modutzat hartzen ez dugun arte. Askotxo dira oraindik, beren ingurunea suntsitu eta gutxiesten duten bitartean, aurrerabidea eragozteko ekologiaren aitzakia ipintzen dutenak.

Bestalde, ekologiaren gaineko eztabaida eta erabakiak zein inguru politiko-administratiboren barruan sortuko diren gogoratzea komenigarri iruditzen zaigu. Egia bada ere ekologiaren inguruko arazoen aurrean herritar edo *"inguruetako erakunde-en"* ardura eta lana egunean baino egunean gogorragoa izango dena, eta herritar bakoitzak ekonomiaren gaineko erantzunkizuna eta sentipena barneratuko baditu, zilegi da pentsatzea lurra eta gizonari buruzko arazo nagusiak nazio barruan ezin izango direla konpondu.

Ingurugiro politika kanporatzea ekarriko du, horrek, gure kasuan abiapuntu Brusela izango delarik. Era berean, sortuko diren erakundeak (txiki baina ugarien) antolakuntza eredu eta partehartzearen eraberritzea ere ekarriko du, lehenago ere esana dugunez.

1.7. Kultura. Ideiak eta Balore Berriak.

Bide luzea egin dugu honaino, zinez; itxuraldatutako ekonomia eta politikak baldintzaturiko ingurua ikertuz, antolaketa eredu berriak sortuko dituen eta gizarte horretan bizi beharko duen gizonaren lana bultzatuko duena. Hala ere, zeharka ez bada, aldaketaren muina den gizonaren berri ez dugu eman.

Prozesua, gertakari nabarmen batez urratzen badugu, hots, sobietar Inperioa behera etortzeaz, Berlineko Hormaren erorketaz eta Ekialdeko ereduaren azkenaz, egokia dirudi hari buruz zerbait aipatzea, kultura mailako aldeketen azterketara hurbiltzeko bederen. Azpimarratu ere azpiratzen genuen marxismo eta sozialismo ortodoxoak porrot egin zutenean, ateak ireki egin zitzaizkiola liberalismo edo teoria ekonomiko berri bati. Hori aipatzeak esan gura du pentsamolde oso bat, balore eskala osoa etorri zela behera. Hura erortzeak kapitalismoaren garaipena adierazten ez duen bezala, zorionez, marxismoaren heriotza ez da anti-marxismoaren garaipena. Horrezkero, Humanismoa berrerratzeko ordua iritsi da.

Eta hain zuzen ere, ideologiaren sasoia bukatu delako ustean eror gintezkeen honetan berrerratu behar dugu; ezker-eskuin eztabaida —geometri zentzua gaitzean— pragmatismoari makurtu zaiola pentsa dezakegun honetan; arazo orok urtenbide bakarra duela uste dezakegunean; gizartean nagusi nor izan eta nork gobernatu axola ez due-

nean; "arima gabeko" teknokraten ordua heldu delako aburua izan dezakegunean; materialismoak erreta bizi garen honetan; norberekoieria nagusitu den honetan eta arrakasta, aberats jendearekin parekatzen dugun honetan; baita benetan balio duena azken emaitza dela, eta ez bidea uste dezakegunean eta gizona gauza guztien gune eta helburu barik, tresna dela pentsatzeko joera dugun honetan ere.

Garapen ekonomikoa eta gizarte ongizate bikotea dira hamarkada honetako helburua, baina gizonaren arabera, gizonarengandik abiatuz eta gizonarentzat. "Gizarte utopia", baterazina ez izateaz gain, eragile ere bada, garapen ekonomikoarena bane. Eta, zorionez, hamar urte barru, argiago. Bizitza egokituko zaigun gizarte motak egunean baino egunean gizaki askeagoa eskatuko du, ikasiagoa, lanerako etika ezinbestekotzat joko duen gizakia; baita, pentsamolderen baten barruan egongo dena, eta ez derrigorrean ikur jakinen pean.

Adar askodun ideologia humanista edukiko dugu begi aurrean, *marxismoaren berezko itzaltzeari* eman beharreko erantzun bezala. Berrezartze oparoa, ezen, kontrako pentsamoldearentzat ez baita lekurik egongo eta ondorioz, askoz aberatsagoa izango baita; ez da ez dogmatiko ez baztertzaila izango.

Pentsamolde berri horrek izango ditu zenbait atal, eguneroko jokabidea zuzenduko dutenak. Hona hemen:

1. Norbanako eta gizarte orokorrean, moral eta etikoki berriro jantzi; abiapuntu, gure gizarte jokabidea iradoki duten baloreen berreskurapena, elkarlaguntza, gizartearekiko konpromezua, lanarekiko maitasuna, ongi burututakoaz harro sentitzea, etika, elkarlaguntza eta norbere buruarekiko konfidantza.
2. Gure berezko ezaugarriez berjabetu, hala norbanako nola talde mailan; hizkuntza euskaldun egiten gaituen ezaugarri nagusi bezala hartu, elkar ulertzeko modu bilakatu, burunahikotasuna duela onartu, hezkuntza, lan edo Administrazio sistemarekiko harreman eta jokabidea alde batera utziaz.
3. Laguntza printzipioa bultzatu, hala harreman egitura eta jokabide pertsonalaren itxuratzaile den aldetik, nola ekonomi eta politika esparruen antolatzaile denetik. Izan ere, hori indartzeak zehaztuko du Gizarte-Estatuak kasuan kasu baitaratzen dituzten funtzioen arteko muga.
4. Giza-eskubideen birbalorapena, oinarri bezala behin betiko jarrerak hartuaz, gure gizartearen kultura propioa indartu. Jokabide horrek, munduko herrien xedeak onartzea dakar, ekonomia, politika eta administrazio alorretan eratzeko moduak garrantzia galtzen duelako, akordio eta berezko konpromezuen alde.
5. Munduko gainerako arazoei hitz eman, bereziki herrialde eta herri garatu gabeetakoei. Alde batetik, historian zehar jasan behar izan duten guztiari amaiera emateko, neurri handian mendebaldeko oparotasuna haien kontura suertatu dela; bestetik, herrialde pobreei soka estutzea galeratzeko, Lin Piaok zioen berdinketa erabiliz: baseritik hirira, hots, desjabetutako jende multzotik kopuruz gutxiago diren herrialde aberatsetako muinera.
6. Gizarteak bultzatzen duen kulturaren eraberritzea.

Azken finean, kultura mailan sendotuta dakusagun gizarte eraberritua, bere ongizate, aurrerabide eta garapenaren alde egiteko gai dena.

II. Euzkadi: Azterlanean murgilduz

Behin mende hasierako ikuspegi nagusiak aztertu eta gure hurbileko eremuan kokatu, gehigarriko ahalegina egin beharrean gara haiek 2000. urteko Euzkadiren esparrura ekarten. Jada aipatutako aurreikuspenekin bat datorren Euzkadi; horrezaz gain, hurrengo urteetako Euzkadiko egoera zehaztea ezinbesteko da, nahiz eta gertakariak hain abiada bizian ematen diren, non, ez dagoen egoera zehatzik antzematearik.

Dena den, 2.005. urteko balizko egoeraren aurreko zertzelada zenbaitean geratuko gara –ausartegiak agian–, informazio iturri batzuk eremu jakin bi jar-tzen dituztelarik iturburutzat:

- 1) Esparru demografikoa
- 2) Esparru ekonomikoa

2.1. Esparru demografikoa

Zertarako Euzkadi eta norentzat atontzen dugu geroa?

Bizitza egokitu zaigun gizarte hau bezalako baten, non langabezia, ezkontza tasa baxua –migrazioen beharadaren islada– eta jaiotza tasa nabariezina, ekonomia eta politika mailako edozein erabakitan isladatzen diren, datorren mendeko gizartearen nondik norakoa ezagutzea inoiz baino garrantzitsuago gertatzen zaigu.

Zertzelada labur batzuk ematea nahikoa dugu balizko errealitate horretara hurbiltzeko:

- A. Gerra-osteko garapenak ekarri zituen jaiotza kopuruaren murrizpena eta migrazioen joeren norabide aldaketa direla eta –normala, industriadutako gizarte ororen joera hori izan da eta– demografiak atzera egingo du arin asko eta nabarmen.

Gerra-osteko garapenari esker lortu den jaiotza kopuruaren behrakada –industrialdutako gizarte ororen joerari jarraituz– ez da horregaitio aldaketa bakarra izan: elikadura, garbiketa ohitura eta osasun azpiegituraren hobekuntzak, baita ongizate publikoaren ezarpen eta garapenak ere, hiltzeko arriskua moteldu dute. Guzti horri, diru arazoak, bikoteen harremanetan erroto diren ohiturak, emakumearen sarrera lan munduan eta beste gehitzen badizkiogu, errez antzemango dugu biztanlegoa zaharkituz joateaz gain, atzetik jende gutxi datorrela susmatzea. Eta gainera, kontutan hartzen badugu sistema ekonomikoaren norabidearen eskaria, ondorio argia aterako dugu: Datozen urteotako Euzkadin, etorkin ugariarekin batera biziko gara.

Inmigrazioa, bapatean eta inolako neuririk hartu gabe gauzatuko balitz, irabazi murrizdunagoko herrialdetako biztanlez osatua legoke, batik bat iparrafrikar, portugaldar eta hispanoamerikarrez, eta neurri txikiagoan Ekialdeko europarrez. Horrela, bada, Euzkadik –baita Europak ere– “*hustutzen*” jarraituko du apurka-apurka, gaurreguneko biztanle kopurua berreskuratzea nekez lortuko duela.

Aurreikuspen horrek, berez, gogoeta serioa egitera bultzatzen gaitu, gure gobernuaren eta politikaren iharduna bideratzen lagunduko diguna. Ezer baino lehen, kultura eta gizarte anizdun inguruan bizitzeko prestatu beharko du Euzkadik; besteak beste, gure kultura eta hizkuntza sustraietara jotzea eskatzen digu, elkarbizitzarako beharrezko den oreka apur ez dadin, sartuko diren kultura berriekiko harremanak alboratu gabe.

Era berean, ongizate eta gizarte segurantzaren norabidearen aldakuntza sakoinei ere egin beharko die aurre Euzkadik, Gizarte berriaren eskari eta beharri-zanak bete ahal izan ditzan, ezen, ohizko laguntza sistemako eman-hartu berezko ereduaren oreka mantentzea zail gertatuko bait zaio. Lehen urratsa, bada, Familiaren Babes politika aurrera eramatea izango da, jaiotza bultzatu, egungo joerari buelta emanez; baita norbanakoen diru-aurrerapena eta lanerako gai den biztanlegoaren lan-urteen luzapena bultzatuko duten solidaritza sistema berriak urratu ere.

Garrantzi handiko erronka Euzkadiren etorkizunerako; berriro ere eztabaida interesgarria aidean. Ez da migrazioaren joera geraezinaz ohartzea soilik, edo etorriko direnekin zer nolako gizartea eratuko den ikusteaz, bertaratzeko bidean aurkituko dituzten eragozpenak alboratu gabe; ezta kultura galduko den ala ez –etorkinak bertaratzen diren moduaren arabera– iragartzea ere. Guzti horren gainetik dago erronka: Alderdiak hitzemandako autogobernu proiektuan aipatutako guztiak zeresan handia duenaren gainean ohartaraztea baino ez dugu nahi.

Azken batean, 2000. urteko Euzkadiren nondik norakoa baldintzatuko du ikuspegi demografikoak. Berriro ere, gure esku egongo da datorrena datorren bezala onartzea edo itxuratu dugun eta nahi dugun geroa eskura jartzea. Gobernuaren ihardunaren jarraipenak eukiko du erantzunaren giltza, etorkin uholde berriekin integrazio plangintzak antolatuz, aurrerantzean haiekin bizi beharko dugu eta.

2.2. Esparru Sozio-ekonomikoa

Ikuspegi sozio-ekonomikoa zehaztasunez aurre-ikusterik ez dago: izan ere, nazioarteko erakunde nagusiak 18 hilabetetik gorako aurreikuspenik ez dute ematen. Aldagarri garrantzitsuenak gutxi gora behera nondik nora joko duten ikusiz, zentzuzko ikuspegi sozio-ekonomikoari hurbilduko gatzazkio.

Honela laburbildu genezake ikuspegi hori:

1. Lanaren nazioarteko banaketaren joera nagusiei eutsi: ondorioz, oinarritzko produktu eta teknologia aurreratudun ekoizkin jakinak, industrialdu berri diren herrialdeetara bideratu. Horrekin, Euskalerriko monokultibo industrialeko eskuz landutako produktuak beste herrialde ekoizkor batzuri lagatuko zaizkie, ohizko sektoreetan apurka-apurka berrikuntzak gauzatuz (itsasontzigin-tza, burdinola, fundizio, altzairu berezi, eskulangintza...).
2. Barne merkatua zein europar merkatua (EEE+EFTA) bateratu eta gauzatzearen prozesuak goia joko du. Lehian irtengo dugu kanpora eta ondorioz, euskal industria garapen maila handiko hiru guneei begira jarriko zaio: Europa, Japonia eta iparramerikar merkatu berrira (USA, Kanada eta Mexiko). Prozesu hori, Euzkadin ekoizten diren ondasun eta zerbitzuei etekina ateratzean baino, euskal industria kanpo merkatuetan sartzean oinarrituko da, ekoizpen unitate berriak kanpoan ezartzea bide.
3. Europar politika ekonomikoa finkatu. Industria, energia, ingurugiro, kontsumo eta defentsa politiken arlo ugari homogeneitatzera eskatzen du horrek. Horrekin lerroz-lerro, ezarria izango den ekonomiaren printzipioei jaramon eginaz, lanerako araudi berria itxuratuko da.
4. Ekonomia nazioartekotuz joango da, European pilaketa handia suertatuko delarik, nahiz eta gune garrantzitsuenen arteko tirabirei eutsi beharko dion. Erdi-gunetik urrun samar egongo bada ere, atlantiar aldeko ardatzak bultzakada nabarmena jasoko du.
5. Barne inbertsio –hala publikoa nola pribatua– eta espainiar merkatuaren eskari handiari esker, euskal ekonomia hazten eta hazten joango da. Dena den, atzerriko inbertsioek ere gora egingo dute, ondorio positibo bati esker, hots, industria lehiakorraren oinarri sendoa berreskuratuz eta finkatzearen eta terrorismoa gaintzeagaitik.
6. Euskal BPG-a larregi aldatuko ez delakoan gaude; sektore ezezagun edo apenas garatutakoak agertzeko aukerak ere, eskasak. Hala ere, oinarritzko industria –siderurgia, zehatz esateko– desagertuz joango da eskulangintza industriaren alde, arlo desberdinetara hedatzea bultzatuz. Bestalde, Estatu mailan aurreikusi den bilakaeran Euzkadik ez du hainbestearainoko garrantzia izango Estatuaren BPG-can; demografian espero den beherakadaren parean joango da, gainera.

III. Politika ekintzen behagunea

Aurreko atal biren irakurketatik atera dezakegunez, Euzko Alderdi Jeltzaleak, gobernu ekintzak bide eta erakunde guztiak berekin ekarriz, Euskal Gizartearen eskariei erantzuna bilatzeko egokiak direla uste dituen ekintzak bideratuko ditu.

Eskaria, Politika Ekintzen Gune zenbaitetan pilatuko da, honako hauek, besteak beste:

1. Ezagutuko dugun inguru orokor eta multidemokratikoan, herrien berezko eskubide eta auto-antolaketa, kudeaketa publiko eraginkorrek josteko gauza izango den maila politiko-administratiboaren antolapen eredu berriaren taiuketa.

2. Merkatuak agintzen duena eginez errekurtsoen banaketa ia biribila eta bere garapena eta bilakaera bermatzeko gai den Ongizate Gizarte baten zerbitzura jarriko den giza berdintasunaren arteko oreka bermatzeko gauza izan beharko duen merkatu ekonomia-aren garapena.

3. Gizakia gizaki den aldetik eta gizarte-kume den aldetik, bere sena eta nortasunaren bila etengabe aritzea, bilakaeraren funtsa hori baita. Bidea, kultura eta historia sendotzea izango da, etorkizun aberatsagoaren egitasmoaren onerako izango delakoan.

4. Aurreikusitako helburu orokor eta arazoaren –zerbitzurazteaz irtenbidea bilatzera derrigortuak egongo diren talde politikoak eta funtzio publikoa, nahitaez–, errekurtso publikoen hobekuntza eta errentagarritasunerantz jotzea.

IV. Jaurtzeko hamar arau...

Lehenxego azpimarratu ditugun arloetan, Euzko Alderdi Jeltzaleak politika mailan nondik nora joko duen zehaztu ondoren, gobernu gure egitasmoari erantsi beharreko politika ekintza eta tresnak eratzekitzea legokiguke, ondoren aipatuko ditugun hamar lege hauen irtenbide izango direnak:

1. Zer garen eta zer dakigun egiten abiapuntuetzat harturik, aberastasuna sortu eta gauzatu.
2. Herritar oroaren bizitza duina bermatzeko duen Ongizatearen Estatu Sozialaren jaiotzan aurrera egin, batez ere fisiko zein psikikoki gutxituak diren horien; baita sortuko den aberastasunaz denok neurri berean gozatzeko ahaleginak egin ere.
3. Administrazioa eraberritu: elkarlaguntza legea abiapuntu, Estatu berrirako bidea egin, betiere herritarren zerbitzura, zerbitzu publikoen kontsumitzaile den aldetik. Horrekin batera, erakundeetan agintea duen talde politikoa aberastu etika eta moral mailan, hura lortu ezik neurriak berehala hartuko direla.
4. Elkartasunaren bultzatzaile eta herri eta herritarrenganako errespetuan funtsa izango duen Europa aurreratua eratu Euzkadi atzean ez gelditzea lortzea, albora utzi ezin dezakegun elkarlaguntza beti gogoan hartuta.
5. Euzkadi itxura hartzen hasia den Europa berri horretako garapen guneetara gerturatu.
6. Ezagutzaren gizarteko kideak –gizon eta emakume– etengabe eta osotasunean janzteko bideak jarri.
7. Herrien eskariei jaramon egin, elkarrekin taiututako berebiziko egitasmoetan, lehenatasuna gizarteari berari eman.
8. Hitzarmen Kulturala bultzatu, ezinbesteko ezaugarri eta elkar ulertzearen oinarri hizkuntza duen herri bezala, norbanako eta herriaren sena sendotuz

elkarbizitza eta aurrerapena bultzatuko duten balore garrantzitsuei eusten dien askotariko gizarteak baitaratzen duen prozesua delako.

9. Ekologia gizarteratu, hura jagon eta gordetzeko ardura eta erantzunkizuna egotziz.
10. Herri, gizarte eta norbanakoen nahi eta beharizanen arabera, autogobernu kontzeptu erreala berriz zehaztu.

Guzti horrekin, Euzko Alderdi Jeltzaleak urrats galanta emango du 2000. urterako aurreikusitako ikuspegira hurbiltzen; jarrera zabala, etengabe aldatzen ari denarena, bertako gizon eta emakumeen borondatearen bidez gure Herria eraberritu behar diren zalantzarik ez daukagulako, arazo ugari ere irtenbidea aurkitu beharko diegula jakin dakigun arren. Erreza izango ez dena ere badakigu, baina geure burua antolatzeke gai garelako, gauzak errezo egin ahal izango ditugu, betiere herritarren ongizatearen bila. Muga bakarra, erabakien eta gainera datorkigun geroaren itzulezina.

Era horretan, Euzkadiko Etorkizunerako Ikuspegi Berriak, espero dugun "*eskunategia*" eskura izateko baliagarri suertatuko zaizkigu.